

Oinarrizko maila ikastaroa

Helburuak:

Ikastaroa bukatuta ezagutza hauen jabe izanen zara eta hau egiteko gauza izanen zara:

1. Zuhaitz nabarmen bat definitzea haren balio biologiko eta ondarezkoagatik.
2. Zuhaitzek zergatik bizi diren hainbeste urte azaltzea.
3. Sustraiak nola eta non hazten diren deskribatzea eta zergatik diren hain garrantzitsuak.
4. Zuhaitz beterano baten inbentario apal bat oihanean bertan egitea.
5. Zuhaitz beteranoak eta haien ingurunea kudeatzea egokia noiz den ebaluatzea.

Ikastaroaren iraupena:

9.30-4.30 20-30 minututako 2 atsedendirekin eta ordu bateko bazkariarekin (alda liteke ikastaroko arduradunen eta ordezkarien beharren arabera, beti ere gutxienez 7 ordu eutsiz).

1. saioa: Sarrera

Helburuak:

1. Ikastaroaren aurkezpena.
2. Izotzaldia urtu, parte hartzaileak eta arduraduna erlaxatu ikasteko giro onean kokatzeko eta denok pixka bat elkar ezagut dezaten.

(Kontuan hartu antolatzaileek parte hartzaileei buruzko alde aurretiko informazioa badutela, izen-emate prozesua dela-eta).

Metodoa:

Bikoteka

Aldia	Edukia	Nor?
9.30	Hasiera, ikastaroko arduradunek beren buruak eta programa aurkezten dute (itzultzaileak...), eguneko plana.	Ikastaroko arduraduna
9.40	Segurtasunari eta osasunari buruzko ohar garrantzitsuak, larrialdi-irteerak, komunak, etab.	Ikastaroko arduraduna
9.45	Izotzaldia urtzeko ariketa. Ikasleak bikoteka lan egiteko eskatuko da (hiruko talde bat ere, kopuru bakoitia balego). Guztion izenak, lantokia, ikastarotik espero dutena... ikasiko da. Ikasle bakoitzak bikotekidearen berri emanen du guztion aurrean. Ikasle bakoitzak bikotekidea labur aurkeztu eta arbelean ikastarotik espero dena jasoko da.	Ikasleak bikoteka
9.55 – 10.15	Gelan barna ibili eta eskatu bakoitzari nor den bere bikotekidea. Ikasle bakoitzak bikotekidea labur aurkeztu eta arbelean ikastarotik espero dena jasoko da. Gorde material hau ikastaroaren bukaeran erabiltzeko.	Talde osoa / Ikastaroko arduraduna

2. saioa: Zuhaitz zaharra: definizioa

Helburuak:

Saioa bukatuta ikasleak honetarako gauza izanen dira:

1. Zuhaitz zahar baten ezaugarriak zerrendatzeko.
2. Zuhaitz zahar baten definizioa emateko.
3. Adina eta tamaina zergatik ez diren fidagarriak zuhaitz zahar ezaugarritzeko azaltzen jakiteko.

Metodoa:

Talde osoaren eztabaida

Elkarrizketa taldeen arabera lana

Aldia	Edukia	Nor?
10.15 2 min.	Sarrera: Zer dira zuhaitz beteranoak? Nola ezagutu? Adinaren, tamainaren eta egoeraren arteko harremana ikertu.	Ikastaroko arduraduna
10.17 5 min.	1. ariketa: Arduradunak zuhaitz zaharren hainbat argazki erakutsiko ditu paperan eta pantailan. Zalantzarik dira, zaharrak dira. Galdetu ikasleei zuhaitzen zein ezaugarriak erakusten duten hori. Galderen aldia: arazorik?	Ikasleek parte hartzen dute eta arduradunak arbelean idatzi. Ikastaroko arduraduna
10.22 8 min.	Zahartze prozesuaren irudia pantailan erakustea. Deskribatu nola zahartzen diren zuhaitzak: adaburua, enborra eta sustraiak "Tree yoga" ariketa.	Ikastaroko arduraduna
10.30 10 min.	Bioaniztasun eta zuhaitz zaharrak: aurkezpena. Ornogabe sapiroxilikoak barne. Bizitzaren zikloak eta nitxo zehatzak. Zerbait esan usteldurari eta onddoei buruz.	Ikastaroko arduraduna
10.40 15 min. gehenez	2. ariketa: Orriko zuhaitza – etiketatu habitat guztiak. 3ko taldeak. Talde bakoitzak zerrenda ditzala ahalik eta habitat gehien. Txokolatina irabazleari! Taldea bakoitzak habitaten adibideak emaitzatela.	Elkarrizketa taldeak
10.55 5min.	Ornogabe sapiroxilikoaren adibideak eman, haien bizitzaren zikloak eta txoko zehatzak. Habitat bera egoera diferenteetan azpimarratu: egutera/uspela... Denbora baduzu, eta talde aditu batean egokitu bazaizu, proposa zenitzake 2. ariketako zuhaitzetan bizi litekeen espezieen adibideak. .	Ikastaroko arduraduna
11.00 10 min	Zuhaitz beteranoen balio kulturalak eta estetikoak	
11.10 - 11.15	Definizio baten balore guztiak bildu eta azaldu horren zailtasuna – adibideak. Bukatzeko, ordura arte egindakoaren laburpena egitea.	

11.15 -11.40 Atsedena-dia-kafea (Guztiok prest atsedena-dia bukatuta oihanera ateratzeko).

3. saioa: Oihanera – zuhaitz zaharren ezaugarriak

Helburuak:

Saioa bukatuta ikasleak honetarako gauza izanen dira:

1. Oihanean gutxienez zuhaitz zaharren 5 ezaugarri ezagutzeko eta basa landarediarentzat eta faunarentzat zergatik diren garrantzitsuak azaltzeko.
2. Zuhaitz zahar baten inbentario apal bat egiteko.

Metodoa:

1. Oihanera joatea zuhaitz zahar bat ikusteko eta elkarrizketa gidatu baten bidez zuhaitz zahar horren ezaugarri ikusgarri guztiak aipatzea.
2. Fitxa erraz bat betetzea.

Aldia	Edukia	Nor?
	Saiorako sarrera. Zuhaitz zaharren ezaugarriak ezagutzea eta zuhaitz zaharrekiko ikuspegi kritikoa.	Ikastaroko arduraduna
11.45-12.15	Taldeak alde aurretik identifikatutako zuhaitzak, hainbat ezaugarri agerian dituztenak, bisitatuko ditu.	Arduradunak talde osoa gidatuko du. Oinez bi zuhaitzetara hurbildu eta azpimarratu haien bioaniztasunarekiko berezko balioak eta zergatik habitatak diren bioaniztasunerako horren garrantzitsuak. Egur hilaren kudeaketa aipatu.
12.15-13.00	3. ariketa: Talde lana. Talde bakoitzak fitxa bana hartu eta osatu (arduradunak esanen die zein. Inoiz ez 5 baino gehiago) Ondoren, talde osoa zuhaitzez zuhaitz joanen da eta bakoitzaren bioaniztasunarekiko balioak deskribatuko du fitxa egile bakoitzak. Eztabaidatu egur hilaren kudeaketari buruz eta entregatu horri dagokion dokumentua.	Arduradunarekin, haren laguntza beharrezkoa balitz, eta talde txikietan.

13.00-14.00 Bazkaria

4. saioa.: Zuhaitzen kudeaketa

Helburuak:

Saioa bukatuta ikasleak honetarako gauza izanen dira:

1. Erabakitzea noiz den egokia kudeaketa zuhaitz zahar zehatzentzat eta bere ingurunerako.
2. Zuhaitz zaharren kudeaketa egokirako jarraibide sinpleak emateko gai izatea.

Metodoa:

Bideoa

Eztabaida

Talde lana

Aldia	Edukia	Nor?
14.00	Saiorako sarrera. Zuhaitz zaharren kudeaketa.	Ikastaroko arduraduna
14.00-14.15	4. ariketa: Sustraiiei buruzko informazioa: 'gezurra ala egia'. Sustraiiei buruzko informazioa eta antzeko irudiak Gelan barna informazio puskak paperan zintzilikatzea gero ikasleek erantzun zuzenak bila ditzaten. Bikoteka egin liteke.	Ikasleak
14.15-14.25	Emaitzak eta iruzkinak	Ikastaroko arduraduna
14.25 2 min.	Nondik datoz zuhaitz zaharrak? Sarrera laburra	Ikastaroko arduraduna
14.30-14.45	5. ariketa: Adarjaleak ala desastre naturalak? Hiru talde osatu, eta bakoitzari galdera bat eman. 5-7 minutu eztabaidatzeko. Ondoren bildu iruzkinak arbelean.	Ikasleak
14.45-15.10	Kudeaketarekin lotutako arazoak eta kontuak. Bideoa/aurkezpena: aukerak/ideiak zuhaitz beteranoak inguratzen dituen lurraldea kudeatzeko (moztu, soildu...)	Ikastaroko arduraduna Bideon bidezko aurkezpena.
15.10-15.50	6. ariketa: Zuhaitz baterako kudeaketa aukerak (argazkiak) eztabaidatu talde txikietan. Gero besteei hori azaldu. Atsedenaldira sartu eztabaidaren denboran.	3 edo 4 laguneko taldeak. Nahastea hobe. Zuhaitz bana arazo/konponbide bakoitzeko. Zuhaitz hil bat, sustraietan oso kaltetua dagoen bat, inguruan soiltzea behar duena, zerbitzugune batean (aparkalekua, merenderoa, bidea...) dagoen bat
15.50-16.10	Zuhaitzen inausketari buruzko bideoa. Ondoren kudeaketa atalaren laburpena.	

5. saioa: Ondorioak eta bukaera

Helburuak:

Saioa bukatuta ikasleak honetarako gauza izanen dira:

1. Ikasleei azkeneko aukera eman galderak egiteko.
2. Ikasleei esan non aurkitu informazio eta laguntza gehiago.
3. Ikasleen iruzkinak/iritziak esan ditzatela lortzea.

Metodoa:

Saio irekia: galde-erantzunak.

Informazio orriak/pendrivea ematea

Ebaluaketa inkestak

Aldia	Edukia	Nor?
16.10-16.20	Galdera-erantzunen saioa. Laburpena. Itxaropenen zerrendara itzuli eta landu taldearekin.	Ikastaroko arduraduna eta ikasleak
16.20-16.25	Babesa eta legedia Bideoa: Arriskuaren kudeaketa zentzu komunarekin (denbora izanez gero). Galde-erantzunen saioa: laburpena.	Ikastaroko arduraduna
16.25-16.30	Non aurkitu informazio gehiago, bertaratze-ziurtagiriak banatua inkestak betetzen ari diren bitartean.	Ikastaroko arduraduna eta ikasleak
16.30	Bukaera	